

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA ETA BOTEREA EUSKAL HERRIAN

Paulo Iztueta Armendariz  
Donostia, *Utriusque Vasconiae*, 2000

Feuerbach-i buruzko hamaikagarren tesi sonatua («filosofoek mundua desberdinki interpretatu besterik ez dute egin; berau aldaraztea da kontua») bere eginez, errealitatea ezagutuz aldatzea proposatzen digu Paulo Iztuetak bere azken lan honetan. Teorian eta praxian bat eginez, euskal pentsamenduaren garapenerako ezinbestekoa dugun euskarri berri bati hasiera emanez dator gainera: *Utriusque Vasconiae* argitaletxea alegia. Azken hau nahikoa izango litzateke, bera bakarrik harturik, eginiko lanagatik zoriontzeko. Izan ere, geure errealitateaz kanpotik datozkigun pentsamendukoak beren garapenerako dituzten baliabide eta tresnak ikusirik, estimatzekoa baita gu zuzenean ukitzen gaituzten gaiak eta lantzen ari garen ikuspuntuak sustatzeko plataforma egokiak izatea. Ongi etorria, beraz, argitaletxe berriari.

Baina argitaletxearen jaiotzaz gain, ekarpena bera da aipagarria. Gai mardul bati egin nahi izan dio aurre egileak liburu honetan: euskal hezkuntza sistema, naziogintza eta herrigintzarako ezinbesteko tresna gisa harturik. Eta sistema horrek beste bi osagairekin duen harreman estuari: hizkuntza eta boterea. Iztuetak errealitatearen aldakuntzarekin duen konpromisoa lehenengo lerroetatik ikusten da, eta liburuaren lehen atala horren isla dugu: *Eredu berri baten bila*. Atal honetan, egileak lotu egiten ditu bere jarrera kritikoa (gizartea ezagutu eraldatzeko) eta liburuan jorratzen duen arloa

(hezkuntza sistema hizkuntzaren eta boterearen argitan), dena eskema beraren azpian, bere lanari zentzua emanez.

Liburuaren egitura aztertzeari ekin aurretik, esan dezagun gure iritziz lan hau polemikoa gerta daitekeela, bereziki egileak ohikoa duen argitasunez tratatzen dituelako gaiak. Gogoeta polemikoei ez die muzin egiten eta, zezenari adarretatik eutsiz, batzuetan tabu gisa hartzen diren gaiak jartzen ditu mahai gainean: adibidez, Euskal Herrian azken mende eta erdian izandako etorkinen uholdeen ondorioz gertatutako aldaketa sozialak. Zalantzarik gabe gai delikatua eta zorrotz jokatu beharrekoa izanik, Iztuetak hautsi egiten du askok errealitate hori, aurreiritziengatik edo behar bezala tratatu ezinagatik, ezkutatzeke duen joera, eta gaia hausnartu beharra aldarrikatzen du, egokiro tratatu ahal izateko. Era berean, uxatu egiten ditu euskara despolitizatu beharra dagoela pentsatuz liburura hurbiltzen direnak: horiek hobe dute «liburu hau ez irikitzea», abisatzen du egileak, hortik aurrera garatuko duen tesi nagusia (hizkuntzarena eta hezkuntzarena, funtsean, botere-arazoak dira) aurreratuz.

Edukietara etorrita, honako galderari erantun nahi zaio liburuan: ba al dago euskal hezkuntza sistema propioa eraikitzerik botere politikorik gabe? Gaia planteatzean ere agertzen da egilearen zigilua, batetik urte askotako kezka izan duelako berori (gogora da-

tozkit, esaterako, hizkuntza eta botere-ari buruz idatzitakoak), eta bestetik orain plazaratzen dituen gogoetak urteetako eztabaida eta mugimenduen ostean datozelako (besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastolen publikazioen prozesuaz eginiko hausnarketa).

Botatako galderari erantzuteko, arlo ezberdinetara jotzen du egileak. Bate- tik, hezkuntza eta boterearen arteko lotura ukitzen du. Horretarako harre- man horren bi osagaiak aztertzen ditu sakonki. Boterea eta hezkuntza zer diren, eta bakoitzaren hausnarketara- ko erabili izan diren paradigma nagusi- ak. Azterketa horietan bere maila ematen du lztuetak: kontzeptuak argitu eta mugatzea gustukoa du, eta teoria eta autore klasiko zein berriez duen ezagutza zabalari esker, sintesi be- netan interesgarriak egiten ditu, garatu nahi dituen planteamendu teorikoei eta proposamen praktikoei oinarri sendoa ematen dielarik. Benetan gomendaga- rri gertatzen da, hartara, liburu honen irakurketa, gai hauek hobeto ezagutu nahi dituenarentzat.

Botere politikoaren definizioan zen- bait osagai azpimarratzen ditu: esta- tuak bortxaren erabileran beretzat ald- arrikatzen duen monopolioa, gizartetik eskuratzen duen legitimazioa eta obe- dientzia, edo lurraldetasuna. Hezkun- tzari buruzko hausnarketan, paradig- ma nagusien berrikusketak bide ema- ten dio eredu baten proposamenari: sei tesitan laburbiltzen den eredia alegia. "Askagintza etikoaren pedagogia kritikoa" izenburupean, gizarteari eta hezkuntzari buruzko hausnarketan na- zioak, hizkuntzak, historiak edo ados- tasunak izan behar duten lekua alda- rrikatzen du egileak.

Arlo biak banaka erabaki ostean, beren arteko erlazioan aztertzen ditu

segidan, *Estatua eta hezkuntza* izene- ko laugarren atalean. Hemen, estatu mota ezberdinek (aurreakariek, estatu modernoak, estatu liberalak, zuzenbi- deko estatu sozialak eta estatu sozia- listak) hezkuntzarekikoak nola erabaki dituzten dago ikusmiran. Atal honen ostean aurkitzen du egileak hasieran botatako galderaren erantzuna: «Osoki euskaldunak izango diren hezkuntza sistema nazional batez eta, halaber, hizkuntza nazional batez ari gara hitz egiten. Eta honek, bidenabar, gutxie- nezko botere-maila bat eskatzen du, ez autonomiko hutsa, subiranoa baizik» (131. or.).

Honaino iritsita, azterketa teorikotik iritsitako ondorioa (alegia, egitura poli- tiko subirano eta propioa erdietsi be- harra hezkuntza sistema propioa izan dezagun) gauzatzeko garaian dauden zailtasunak eta aukerak mahai gainean jartzen ditu lztuetak hurrengo ataletan: euskal irakaskuntzak historian izan dituen eta gaur egun dituen egiturazko zailtasunak, egungo estatuaren egoe- raren azterketa eta haren aurkako borrokarenak, autodeterminaziorako eskubidearen ingurukoak, eta abar. Azken parte honek bidea ematen du, hartara, iritsitako erantzunean gelditu barik erantzun horrek dituen ondorioez ere hausnartzeko.

Liburua, beraz, oso aberatsa da. Egileak beste askoren teoriez duen ezagutza eta oinarri sendoek ahalbi- detzen dute azterketa zabala egitea. Era berean, gogoetak ez dira maila teorikoan geratzen, eta etengabe lo- tzen dira maila orokorreko gogoetak eta Euskal Herriaren errealitate konkretua.

Azken honen haritik, zera esan be- har dugu: maila orokorretik maila konkretura ematen diren jauziak, ondo justifikatuta egon arren, batzuetan

gogortu egiten dute irakurketa, agian irakurleak idazleak baino denbora gehixeago behar duelako jauzi horiek egiteko. Era berean, egiten diren hausnarketetan burutzen den lan sistematikoa —kontzeptuen argiketa, ikuspegi guztien azterketa, ekarpen ezberdinen jorraketa, e.a.— oso eskertzekoak dira, erakusten duten guztiagatik eta egiten diren proposamenei ematen dieten oinarriagatik. Baina irakurleak galduta ikus dezake bere burua zenbaitetan. Beharbada, idazleak maila horretan mugitzeko duen trebezia eta norberak duenaren arteko desoreka ager daiteke hemen ere.

Ez guke iruzkin hau bukatu nahi liburuak eragin digun gogoeta bat aipatu gabe. Iztuetak hezkuntzaren

auzia jorratzen du, esan bezala modu sakon batez. Gure lanagatik, hezkuntzarekin antzekotasun eta harreman handia duen beste arlo bat dugu jomugan: komunikazioa. Zehazki, Iztuetak hezkuntza sistema propioa garatzeko ikusten dituen zailtasun eta beharrek zerikusi handia dute beste batzuek komunikazio-esparru propioa garatzeko ikusten ditugun zailtasun eta beharrekin. Gure artean ere etengabeko galdera dugu honakoa: ba ote liteke komunikazio-esparru propiorik, botere politiko propiorik gabe?

Paulo Iztuetak egindako ekarpenak, horretan, lagungarri gertatu zaizkigula ezin ukatu.

*Josu Amezaga*